

## Bezeroekiko harremanak

Hauek dira gure helburuak harreman mota ezberdinen bitartez lortutakoak : Bezero edo kontsumitzaile berriak lortzea, enpresak dauzkan bezeroei eustea eta salmenta kopurua handitzea.

Konbinazio bat egitea erabaki dugu. Alde batetik, zerbitzu pertsonalizatua, familiek gure telefonora deitu dezakete informazio gehiago eskuratzeko, honen bitartez dauzkaten galdera guztiak argitu ditzazkegu eta ondorioz bezeroekiko harremana indartu eta haien eustea lortuko dugu. Beste aldetik, zerbitzu automatizatua, web-gunearen bitartez erreserbak egin ditzazkete eta informazioa bilatu, salmenta kopurua handitzeko eta bezero edo kontsumitzaile berriak lortzeko. Bezeroak web-gunean eskaintako informazioa ikusiz gero, erreserbak egitearen aukera errazago erabakiko dute.

Udalekuetan umeenganako zerbitzua guztiz pertsonala oso garrantzitsua da familiek sentitu dezaten euren seme-alaben zaintza eta entretenimendua pertsonalizatutako eta kalitatezko zerbitzu bat dela. Horrela, hezitzaileak umeekin zuzenean harremanetan jartzen dira, haien beharrak, gustuak eta iritziak aintzat hartuz, eta haien garapen soziala eta emozionala sustatzeko aukera ematen diete. Familiek ikusi dezakete zerbitzu pertsonalizatu honek nola laguntzen dieten euren umeen ongizatean, eta horrek euren konfidantza areagotzen laguntzen du.

Azkenean , bi zerbitzu mota hauek elkarlotuz, bezeroekiko harremana indartuko dugu eta esperientzia hobea eta horrek erakargarriago egiten du zuen udaleku eskaintza.

Gainera, komunitatearen laguntza ere garrantzitsua da, non bezeroek elkarrekin partekatu ditzaketen esperientziak eta iritziak, eta horrek harreman sendoagoak sortzen laguntzen du.